

**Ebazpena: R111/2023**  
**Espedientea: E050/2022**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 15a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabakitzen dute:

## **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, zehazteko nori duen ordainarazteko eskumena Gizarte Segurantzaren Antolamendu Kostuen Zuzendaritza Nagusiak (GSAKZ) Estatuko Administrazio instituzionalean zerbitzuak eman zituzten hartzaileei eta bi pentsiodun alarguni —haien ezkontideek zerbitzuak eman zituzten Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos SAn— 2017an egindako lan pertsonalagatiko atxikipenen gainean. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 50/2022 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- 2018ko irailaren 28an, egoitza fiskala Bizkaian zuten eta Estatuko Administrazio instituzionalaren enteetan zerbitzuak eman zituzten hartzaileei (kasua bada, alarguntza-prestazioa sortu duten hildakoei) dagozkien atxikipenak bidaltzeko eskatu zion BFAk ZAEARI; 24.815.299,66 euro ziren.

2.- 2022ko otsailaren 24an, ZAEAK bidalketari uko egin ziola jakinarazi zuen, administrazio instituzionaleko enteetan zerbitzuak eman zituzten hartzaileei (hala

badagokio, hildakoei) zegokienez, organismo autonomo eta enpresa-entitate publikoek bestelakotzat jotzen baitzituen; 1.132.122,8 euro ziren.

3.- 2022ko apirilaren 11n, BFAk inhibitzeko eskatu zion ZAEARI, eta hark 2022ko maiatzaren 10ean berretsi zuen bere eskumena.

4.- 2022ko ekainaren 8an, BFAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, eta ondorioak zabaltzeko prozeduraren bidez izapidetzeko eskatu zuen.

5.- Alegazio-idazkian, aipatutako prozedura bereziaren bidez izapidetzea ez onartzeko eskatu du ZAEAK, jurisprudenzia irmorik ez dagoela eta Auzitegi Gorenak ebazitako gatazkekin oinarririk ez duela iritzita.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek funtzio hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

## 2.- Prozedura.

Ekonomia Itunaren 68. artikulua araberan, «Hauek dira ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordearen prozedura bereziak: prozedura laburtua, ondorioak zabaltzea eta betearazte-intzidentea».

Bestalde, Ekonomia Itunaren 68.Hiru artikulua honako hau dio:

«Baldin eta norbaitek auzi bat aurkezten badu ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordean, eta auzi horren muinean dagoen kasuaren oinarria jada ebatzita badago beste auziren batean Arbitraje Batzordeak emandako ebazpen irmo batez, eskatu ahal izango du auzia ebatz dadila ebazpen irmo horren ondorioak zabaltzeko».

Hori dela-eta, eskabide-idazkia hilabeteko epean aurkeztu beharko da, Arbitraje Batzordearen ebazpenaren irmotasuna jakiten denetik zenbatuta. Arbitraje Batzordeak gainerako alderdi interesdunei helaraziko die idazkia, hamar eguneko epean kasuaren oinarriari buruzko alegazioak egin ditzaten, eta ebatzi beharko du ebazpen irmoaren ondorioak zabaltzen dituen ala arau orokorreari jarraituz arbitraje-prozedurak hilabetez aurrera jarraituko duen».

Gatazka aurkezteko idazkian bertan eskatu da ondoreak zabaltzeko prozeduraren bidez izapidetzeko, eta, beraz, epe barruan eskatu da.

## 3.- Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia irmoa.

Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko (ECLI:ES:TS:2018:1398), 2023ko urriaren 23ko (ECLI:ES:TS:2023:4427) eta 2023ko urriaren 24ko (ECLI:ES:TS:2023:4427) epaiek jurisprudentzia irmo eta baketsua sortu dute, Estatuko Administrazio instituzionalean zerbitzuak emateagatik lan pertsonalaren atxikipenak hartzailearen bizilekuko Administrazioari dagozkiola ulertzeko, prestazio aktiboak zein pasiboak izan.

## 4.- Kasuaren oinarria.

ZAEAREN arabera, ez dago oinarririk; izan ere, Arbitraje Batzordearen 15/2016 eta 4/2017 ebazpenak —Auzitegi Gorenak berretsiak— MUFACEK egindako atxikipenei buruzkoak ziren, eta, orduan, ez du gatazka horren oinarri bera; Administrazio instituzionaleko beste ente batzuek egindako atxikipenei buruzkoa da.

Hala ere, Auzitegi Gorenaren azken epaiak direla-eta, 2018ko apirilaren 17ko epaian lortutako ondorioak Estatuko Administrazio instituzionala osatzen duen beste edozein entitatetara zabal daitezke.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Deklaratzea BFARI dagokiola Bizkaiko egoiliarrei egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena, Estatuko Administrazio instituzionalean zerbitzuak emateak eragindako prestazio aktibo eta pasiboen ondoriozkoak direnean.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Gizarte Segurantzaren Antolamendu Kostuen Zuzendaritza Nagusiarri jakinaraztea.